

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa eta zerbitzua hobetu funtzionatu al izateko ezinbestekoa izango da aliantzak sortzea. Negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko, baliabideak eskuratzeko... garrantzitsua izango da funtsezko elkarteak sortzea. Gure kasuan Emoveyou enpresarekin egin dugu aliantza. Enpresa hau Bartzelonan dago kokatua eta bizikleta eta patinete elektrikoak sortzen ditu. Guri patinete pertsonalizatua salduko dizkigun enpresa izango da. Hasieran beste aukera batzuk genitun baina prezio-kalitatea kontuan hartuta... erabaki hoberena hartu dugula uste dugu. Horretaz gain gure helburua Donostiako udaletxearekin aliantza egitea izan da. Beste garraio-bide zerbitzu guztiak bezala Udaletxearen zerbitzu "publiko" bat izatea sekulako abantailak ekarriko dizkio gure enpresari. Dena ondo badijoa udaletxea izango da gure enpresaren finantziaketa burutuko duen erakundea. Hauek izango ziren gure 2 funtsezko elkarteak: Emoveyou enpresa eta Donostiako udaletxea.



